

ESKUMENAK ETA LANABES BERRIAK



Papamanila

EGUNGO EGOERA

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritar guztiak alor guztietan baldintza duinetan bizitzeko eta hobetzeko helburu, gaur egun ez dauzkagun tresnak lortu behar ditugu. Gaur egun ez dagoelako dauzkagun tresna eta baliabideez soilik halakorik bermatzerik. Estatu

Espainolarekiko menpekotasun egoerak –gaur egungo autonomia ereduaren gauzapean gisa hartuta- ez digu egoera zail berriari, are gutxiago etorkizun hurbileko erronkei, aurre egiteko aukerarik eskaintzen.

ERRONKA

Egun indarrean dauden instituzio autonomikoetatik abiatuta, egin beharreko urrats bakoitzaren aurrean herritarren borondate demokratikoan oinarrituz, burujabetza eskuratzeko prozesu gradual eta progresiboa proposatzen ari garen heinean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gizarteari zabaldu beharreko eztabaida politiko nagusiari buruz ari gara. Herritarren borondateari erantzunez, espainiar Estatuarekiko burujabeak izango diren euskal egitura instituzionalak eta sozialak sortu beharraz. Euskal herritarren beharrei eta haien oinarritzko eskubideei muzin eginez, espainiar Estatuak gure bizitzetan egunero eragiten duten erabakiak hartzen eta gure gogoz kontra inposatzen dizkigu. LOMCE edo lan erreforma azken adibideak besterik ez dira, baina egunero jaikitzen garenetik berriro oheratu arte gure bizitza goitik behera baldintzatzen duten erabaki politikoak Euskal Herritik urruti hartzen dituzte.

Gure hizkuntza eskubideak, gure hezkuntza eskubideak, gure gizarte eskubideak, gure lan eskubideak, gure kultura eskubideak...egunero ukatzen edo murrizten dituzten erabakiak Madrilen hartzen dituzte. Euskal Herrian ditugun erakundeek –batez ere erakunde autonomikoek- eskumen ugari dituzte, baina ez dituzte inola gizarte gisa nahi dugun orekan hazi eta bizi izateko eskumen nahikorik eta dagoeneko dauzkagunak ahalmenez eta baliabideez husten ari dira.

NEURRIAK

Oraindik transferitu gabe dauden 37 kompetentzien transferentzia negoziatzeko, Negoziaziorako Komisio bat sortu, talde parlamentario guztiek osatua.

Komite interinstituzional bat sortu, Gasteizko Legebiltzarrak hartzen dituen erabakien jarraipena egiteko.

Eskumenak lortu:

- Gizarte Segurantzako euskal sistema propioa sortu.
- Euskal marko bat sortu babes sozial eta lan erlazioetarako.
- Enplegu politikak aurrera eraman.
- Euskal sistema ekonomiko eta finantzarioa sortu eta organizatu.
- Organismo internazionaletan ordezkaritza edukitzea.
- Euskal lurralde guztien arteko- crear un sistema de Seguridad Social vasco.